

Gazteriaren Nazioarteko Eguna osasun mentala erdigunetzat ipini du


Euskadiko gazteen % 13,7k antsietate eta depresio sintomak ditu

Abuztuaren 12an Gazteriaren Eguna ospatzen da. Aurten osasun mental jarri du erdigunetzat eta munduko herriak gazteen ongizate emozionalari buruz pentsatzera bultzatu nahi ditu.


[Gazteen Euskal Behatokiak](#) Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestaren ([ESCAV 2013](#)) datuak aurkezten ditu; hain zuzen ere, ondoez psikologikoaren prebalentziarekin harremana dutenak. Osasun mentalaren gaiari jarraiki, Osasun Sailaren Hilkortasun Erregistroak beren buruaz beste hil direnen datuak erabiliko ditugu.

15 eta 29 urte bitarteko Euskadiko gazteen % 13,7k neurriren baten antsietate eta depresio sintomak dituela dio. Portzentajeak azken hamar urteetan pixkanaka gorako bidea izan du, puntu bat baino zertxobait gehiago hasi da eta.


Emakumeek ondoez psikologiko handiago dutela diote eta 2013an gizonak aitortzen dutena bikoitzen dute. Adin taldeen arabera, 20 eta 24 urte bitarteko gazteak dira ondoez psikologiko gehien aitortzen dutenak (% 16).



Hala ere, gazteek biztanleria osoak baino osasun mental hobea dute. Antsietate eta depresio sintomak gora egiten dute adinarekin eta 75 urte gorakoak dira edonolako ondoez psikologiko gehien pairatzen dutenak.




Ikerketa berak galdetzen zuen ea noizbait beren buruaz beste egitea pentsatu duten. 15 eta 24 urte bitarteko gazteen % 2,9k baietz erantzun zuen, Euskadiko biztanleria osoarena baino puntu eta erdi gutxiago.



Beren buruaz beste egitearen ideia emakumeen artean zabaldiago dagoen arren, suizidioa gizonen kontua dela dirudi. 2012ko datuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen suizidio tasa gizonen artean 5,2 zen eta emakumeena, oster, 0,7. Suizidioaren maskulinizazio hau ez da Euskadin bakarrik ematen; 28 estatuen Europar Batasunean berdina gertatzen baita.

[Eurostaten arabera](#), 28 estatuen Europar Batasuneko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen suizidio tasa Euskadikoa baino handiagoa da, 2010an 7,4 baitzen. Herrien arteko ezberdintasunak oso sakonak dira: Lituania 100 000 laguneko 24,4 da (gizonen artean 100 000ko 43,1 da) eta Grezian, aldiz, 100 000ko 2 da.



Beren buruaz beste egin duten EAEko lagunen bilakaeraren datuak [Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Sistemari](#) daude eskuragarri, "Osasuna" deritzon ataleko "Hilkortasuna" azpiatalean.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

